

Euskara

'Nafarroako herri izendegia' argitaratu du Euskaltzaindiak

Nafarroako Gobernuaren gomendioz egin, atzo aurkeztu zuten Iruñean

Euskaltzaindiko Onomastika Batzordeak, Nafarroako Gobernuaren gomendioz, argitaratu duen Nafarroako herri izendegia aurkeztu zuten atzo Iruñean. Nafarroako herri izenei buruz burutu den ikerketa sakonena dela adierazi zuten.

ANA UNANUE / IRUÑEA

Nafarroako Gobernuak Hizkuntz Politikarako Zuzendaria den Estebe Petrizanek zuzendutako aurkezpenan adierazi zuenez, «lana hiru zatitan egin da, Euskararen legeak finkatutako hiru eremu jarraituz: eremu euskaldun mistoan gero eta, azkenik, eremu ez euskaldun».

Orain arte eremu euskalduneko izenak bakarrik dute ofizialtasuna izan beharrik «txosten honen in-teresa ugaldu baino ez du egiten», Petrizanek ustez.

Ikerketa lana Jose Maria Jimeno Iruñeko koordinatu du, laguntzaile gisa Patxi Salaberri, Iruñeko Magistrazio eskolako irakaslea aritu dena. Laguntzaile zerrenda zabalagoa da eta Onomastika Batzordearen lana urte térdiz luzatu da.



Toponimoen arazoa arrazionaltzen saiatu direla esan zuten.

JOXE

Endrike Knörr, Onomastika Batzordeko lehendakariaren esanetan, «Nafarroako herri izenei buruz egin den azterketa sakonena da hau». Izen bat baino gehiagoren artean hautatu behar izan denean, forma dokumentatuek izan omen dute lehentasuna. «Hizkuntzak badu bere historia eta ezin da horrekin jolastu» ziurtatu zuten Knörrrek.

Txostenerako lehenbiziko informazio multzoa dokumentazio idatzitik atera zen, eta, orobat, gaurko hizkuntza mintzatua, batez ere datu historikoekin bat datorrena, hartu da aintzat.

Euskaltzaindikoek beren eginkizuna ikuspegi akademikotik aholkuak ematea dela ziurtatu zuten, «Euskaltzaindiak ertzantzarik ez duela» eta erabaki politiko-administratiboak beregain ez daudela gogoraziz. Halaber, euskararen normalizazio bidean, herrien izenekin politika egin ez dadin eskatu zuten.

IRUÑA ALA IRUÑEA Ildo honetatik, duela gutxi foru exekutiboak Nafarroako hiriburuaren izenari buruz hartutako erabakia ere aipatu zen. Jakina denez, Euskaltzaindiak Iruñea gomendatu bazuen ere,

Gobernuak Iruña aukeratu du izen ofizialtzat.

Jose Luis Lizundia, Onomastika Batzordeko idazkariak, «tradizioa kontuan hartuta, jatorrizko izena Iruñea iruditu zitzaigulako» aurkeztu zutela esan zuen. Hala ere, administrazioaren erabakiaren aurka joateko asmorik ez dutela ziurtatu zuten, arrazoi linguistikoez gain gizarte mailakoak ere kontutan hartu behar direlako.

Petrizanek, Hizkuntz Politika Zuzendaritzak eremu euskalduneko izen ofizialak erabakitzerakoan jarraitu dituen erizpideak azaldu zituen. «Toponimoen gaia arrazionalizatzen saiatu gara» ziurtatu zuen. Horrela, euskaraz eta erromantzez modu desberdinez deitu dituzten herrietan bi izenak onartu dira. Gai nontzekoetan berriz izen ofizial bakarra finkatu da.

Eremu euskalduneko izendatze elebidun asko egin badituzte ere, eremu mistoan eta ez euskalduneko joera hau gutxitzen saiatu direla aurreratu zuen Petrizanek. Ondorioz, izena euskalduna bada, Euskaltzaindiak jada erabakia duen izena proposatuko dute izen ofizial bakar bezala. Ondorioz, Otxagabia erderaz ere 'tx' eta 'b'z idatziko litzateke. Izena erromantzez balitz, bere hortan utziko litzateke euskaraz ere —Cortes, adibidez, euskaraz ere 'c'z litzateke—.

Atzo inauguratu ziren Getariako Kultur Etxea eta Azkizurako bidea

J.A. / DONOSTIA



Getariako San Anton jaien barruan, herrian egindako zenbait herri-inauguratu zituzten atzo Gipuzkoako Foru Aldundiko ordezkariak, Imanol Murua Diputatu Nagusia buru zutela, eta baita Getariako Udaleko ordezkariak ere.

Azkizu auzorako lehengo bidea aldapatsua zen oso eta estua. Orain egin duten bide berriak kilometro bat eta berrehun metro pasatxo dauka eta horietatik 1.000 metro berriak dira. Azkizurako bide berriaren batezbesteko zabaleroa lau metro t'erdikoa da, eta aldaparik handiena % 9koa.

Ozio eraikuntza enpresak egin dituen lanok, guztira 41 milioi pezeta pasatxoko kostua izan dute, eta erdibana ordaindu dituzte Foru Aldundia eta Getariako Udalak.

Imanol Muruak, Jose Luis Telleria Foru Aldundiko Kultura diputatuak, Julen Goinetxea Herrilantetako diputatuak eta Mariano Camio alkateak inauguratu zuten Kultur Etxe berria. Herriko plazan, eskola zaharra zen etxean egin dute, eta musika eskola, eskulan ikastaroetako lekua eta bilera gelak egingo dira.

340 komunikabide enpresa sortu ziren iaz Spainian

MADRIL

Espanian, komunikabideekin zerikusia duten 340 enpresa sortu ziren 1990. urtean. 1989ko aldean bi bider gehitu dira sektore honetan eratutako elkarteak.

Enpresa gehienak Madril eta Barcelonan sortu ziren, komunikabide elkarten % 50 hartzen bait dute. Elkarte hauen barnean publizitate enpresak, harreman publikoak, argitaletxeak eta aholkularitza enpresak sartzen dira.

Ihaz sortutako enpresen % 8 elkarte mugatuak dira eta milioi t'erdia eta bi milioi tarteko haserako kapitala dute. Madril eta Barcelonaren ostean Sevilak eratu ditu alor honetako enpresa gehienak, osotasunaren % 10 hartzen bait du. Segidan Bilbo eta Valencia daudela kontutan hartuz, Espainiako Komunikabideen Aholkulari Elkartearen (ASECOM) esanetan «probitziako prentsa geldirik dago».

Ikerketa burutu zuen Jesus Gonzalez ustez, Madril zein Barcelonan agertutako enpresa askok «ez du etorkizunik, Sevilako Erakusketa Unibertsala eta Barcelonako Olinpiaden inguruan soilik lan egingo dutelako».

Bilboko Udaleko euskara zerbitzuak 325 milioitako aurrekontua aurten

G.A. / BILBO



Euskarako Udal Zerbitzuak eta Bilbo Euskalduntzenek 1991rako «minimoen» aurrekontua aurkeztu zuten atzo. Euskara Zerbitzuak burutu dituen ekintzak eta zerbitzu berriak biltzen dituen aurrekontuak 325 milioi, gehi, sail honetan lanean ari den langilegoaren soldata aurrikusten ditu.

Koldo Celestinok, Euskara Zerbitzuko zinegotziak, argi utzi zuen ez dietela inoiz eman eskatutako dirurik, iaz aurrekontu orokorren % 0,5 eman zirela zehaztuz. «Iaz 300 milioi eskatu genituen eta azkenean, 180 milioi eman zizkiguten. Gure ustez diru hau ez da nahikoa Bilbok dituen beharrezkoen artean. Lotsagarria iruditzen zaigu Bilbo bezalako hiri batentzat horrelako aurrekontua ematea», salatu zuen Celestinok.

Iazko maiatzerako udalak onarturiko Euskara Zerbitzurako aurrekontu guztia «konsignatua» zegoen arren, gastatutako diruari «errentabilitatea» atera zitzaioela adierazi zuen. «Dirua ondo gastatua egon da, herri partaidetza bultzatzeko bideak

jarri eta zabaldu direlako. Berreuskalduntze prozesuan herri partaidetza oinarritzat dela uste dugulako, aurtengo aurrekontua erakunde eta herri mugimenduen artean egin da», azaldu zuen zinegotzi abertzaleak.

BILBOK EFEKTU BIDERKATZAILEA Bilbok Bizkaia berreuskalduntzeko duen garrantzia azpimarratu zuen, «Bilbok efektu biderkatzailea dauka. Egunero Bilbora jende asko etortzen da eta asteburuetan hainbat bilbotar Bizkaiko beste herrietara joaten da». Bilborako beharrezkoak diren bitarteko guztiak jartzea oso garrantzitsua dela adierazi zuen Celestinok.

Argulu Bilbo Euskalduntzeko kidearen esanetan, euskarak Bilbon duen egoera «nahiko tamalgarrira da». Ezinbestekotzat jo zuen Bilborako euskara programa «minimo bat». «Programa honen bitartez gizarte alor ezberdinetan 3 gauza lortu nahi ditugu: euskararekiko jarrera positiboa sortzea, jendeak euskara ikas dezan bultzatzea eta azkenik, jendeak euskara erabili dezan baliabide batzuk eskaintzea», esan zuen.

Bide seinaleak euskaratzearen alde Iparraldeko 225 pertsonalitate

XAN GOENAGA / BAIONA

Iparraldeko berrehun pertsonalitatek gora izenpetu dute, Euskal Herrian Euskaraz taldeak plazaratu duen herri iragarkien euskaratze eskara. Elkarte eta hautetsiak, pertsonalitateak, talde kulturalak nahiz politikoak, anitz dira, izenpetu dutenak. 225 izen kontatzen dira, horietan, gizarte arlo guztietako pertsonalitateak, kirol, kultur, politika, irakaskuntza, komunikabideak, eliza, justizia eta beste zenbait sailtakoak. Izenpetzearen aldeko oldar bera ezagun da euskal elkarteetan, elkartek eta enpresa izenpetzaileak iparraldeko gora dira. Azkenik, iparraldeko ezagutzen dituen talde abertzale politiko guztien siglek sinatzen dute ageria.

Izenpetze bilduma hori, hautetsiei zuzendu zaie, beren herrian zerbitzu egin dezaten, horretarako duten ahalmen eta boterea erabiltzeko. Ezen, bideetako iragarkietan, bide bereiztu behar da. Frantses legearen arabera, herri eta

karrika izenak, herriko etxeen ardurapean daude; norabide seinaleak aldiz, Estatuaren zerbitzuen ardura dira.

Herri batzutan frantsesezko izenaren parean euskarazkoa ikusten bada ere, ez da hori izan oraino ipar Euskal Herriko herri guztietan jarraitu den jokamoldea. Herriko etxeetako gainerako zereginetan (idatzizko ohar publikoak, karriken izenak) Azkaine, Arbona, Donibane Lohitzune eta Hazparnek egin dute urrats bat aintzina. Beste herri guztietan frantsesa baizik ez da ikusten.

Izenpe bilketa hori, Euskal Herriaren Euskaraz taldeak daraman euskararen ofizialtasunaren aldeko kanpaina orokorrean kokatzen da. Ofizialtasunaren bidean, lehen urrats gisa, euskara idatziaz lotu zaio taldea. Izen bilketa horrek, Herriko Etxeak beren gaitasunen arabera, erabakien hartzea deituen diren bezala, Estatu mailako neurrien hartzeko, departamenduko iragarkiei zuzenduriko kanpaina bat abiatu da.